ZERGATIK DAUDE ARRATZALEAK MUNDUAN? (2)

Lamiak bere etxera gonbidatu zuen artzaina, afaltzera. Zopa handi bat prestatu zion lapiko erraldoi batean, baina, zera, lamiari nahiko gazi atera zitzaion zopa hura. Artzaina heldu zen. Biziki poztu zen zopa hura ikustean! Dena jateko prest zegoen, baina dastatu zuenean… Hara!, zopa hura gazi-gazi zegoen.

Atera kontuak, ez zegoen gizakirik zopa hura jan zezakeen, gazi baino gaziago zegoelako! Artzainak erantzun zion:

–Maitea, barkatu, baina ezin dut hain gogotsu prestatu duzun zopa jan.

–Baina, zer dela-eta? Lamiak erantzun zion.

–Tira, oso gazi dago.

–Zer diozu? Ez dago horren gazi!

–Niretzat bai.

1) Zertara joan zen artzaina lamiaren etxera?
   a) Zopa dastatzera.
   b) Afaltzera.
   c) Zopa prestatzera.

2) Zer prestatu zuen lamiak afaltzeko?
   a) Lapiko erraldoi bat.
   b) Gazi.
   c) Zopa.

3) Zergatik ezin zuen jan artzainak zopa ?
   a) Zopa gogotsu prestatuta zegoelako.
   b) Zopa gustatzen ez zaiolako.
   c) Zopa gazi zegoelako.

4) Nork uste zuen zopa oso gazi zegoela?
   a) Biek: lamiak eta artzainak.
   b) Soilik lamiak.
   c) Soilik artzainak.

5) Lamiak zopa gutxi prestatu zuen?
   a) Bai, lapikoa handia zen baina gutxi zeukan.
   b) Ez, oso lapiko handi bat prestatu zuen.
   c) Bai, horregatik gazi atera zen.

LIVEWORKSHEETS